

# Sagardoa, Udako Euskal Unibertsitatean aztergai

UEUk eta Sagardo Egunaren Lagunak taldeak sagardogintzari buruzko ikastaroa antolatu dute

**S**agardo Egunaren egitaraua ez da amaitu oraindik. Sagardo Egunaren Lagunak taldeak Udako Euskal Unibertsitatearekin batera ikastaro berezi bat antolatu du oraingoan. "Sagardoa, txotxetik haragokoa. Gustu baduzu..." izeneko ikastaroak Baionara eramango ditu uztailearen 12tik 13ra gaien interesa duten eta matrikula osatzen duten guztiak.

Baionan hasiko da ikastaroa, Jakoba Errekondo eta Ametza Larrañagaren eskutik. Ez da kasualitatea Baiona izatea aukeratutako lekua. Sagardo Egunaren Lagunak taldeak Iparraldeko herri bat aukeratu nahi izan du, bertan euskarak bizi duen egoera kaxkarra dela eta. Bi hitzaldien ondoren, 14:30ean txangoa egingo da Usurbila. Behin hona iritsita hitzaldia egongo da Alkartasuna kooperatiban, hau ere Jakoba Errekondoren eskutik. Eta ondoren, sagardo-dastatze didaktikoa Xabier Kamio enologoarekin.

## UEUKO IKASTAROA

"Parte hartu nahi duenak matrikula egin beharko du ekainaren 18a baino lehen"

Gauean bertso afaria egingo da Euskal Herriko txapeldunarekin. Andoni Egañak hitzaldia eskainiko du Iruin sagardotegian, "Sagardotegiak bertsolarien Unibertsitatea" sailaren barruan.



ANDONI EGAÑAK HITZALDIA ESKAINIKO DU ETA BERTSO-AFARIAN ERE HARTUKO DU PARTE.

Afaria amaitzean, Baionara itzulera egingo da autobusez.

## Ikustaldi gidatua

Hurrengo goizean beste bi hitzaldi egongo dira, Iñaki Larrañaga eta Ramon Amenabarren eskutik. Eta ikustaldi gidatua egingo da gero, haize zabalean, Pantxika Maitia Sagartze elkarteko lehendakariaren gidaritzapean.

Ikasgelak Louis de Foix lizeoan daude, eta nahi izanez gero gaua ere bertan igaro daiteke. Egoitza eta otorduak eskaintzen dira bertan, matrikularekin batera ordaindu beharrekoak. Bestela, beste aukera batzuk ere badaude, baina horietan ikasleak bere kabuz egin beharko ditu erreserba eta ordainketak.

Parte hartu nahi duenak matrikula bete beharko du ekainaren 18a baino lehen. Deskontu ezberdinak egingo dira pertsonen egoeraren arabera, baina prezio orokorra bi egunetarako 78 eurokoa da. Ikasle edo langabetu direnentzat 70 eurokoa izango da, UEUko kideentzat 66 eurokoa eta ikasle edo langabetu izateaz gain UEUko kide direnentzat, 59 eurokoa.

Matrikula [www.ueu.org](http://www.ueu.org) webgunean egin daiteke, edota UEUren bulegoetan: Bilboko Egoitza Sozialean, Eibarko Ikastetxe Nagusian, Iruñeako Nafarroako bulegoan edo Baionako Ipar Euskal Herriko bulegoan. Postaz egiteko, matrikula orria eta ordainagiria UEUren Eibarko bulegora bidali beharko da.

ARRAINDEGIA  
**PELLO**  
Puntapax Kalea, 7  
Tlf 36 21 64  
USURBIL

**txirriStra**  
KONTSEJU ZAHARRA 13  
943 360 400  
pintxoak  
ogitartekoak  
plateak konbinatuak  
**TABERNA**

**Patri Jatetxea**  
K/nagusia 14. © 943 362 725